

TXOMIN AGIRRE EUSKAL IRAULTZALLEA

Ainbat kartel ikusten dira gure errialdean iraultzari buruz.

Orrelako bateri hegira nengoala, adiskide batek, zirikatatu naiean eta bear ba da akulari be hai, belarrira esan eustan: Zuen Txomin Agirre'k ez eban here bizian berba ori erabiliko.

Ezetz?

Azkue'k diño bera odol gorria zala, gartsua, beti aurrerako. Eta Agirre ostera odol zurbil, bigun, makal, errez zalantzan edo ezpaian geratzen zan a.

Ortik begiratuta ha dirudi ezetz.

Baiña Agirre ondarrutarra zan. Gogo eta biotzez. Eta zegaitik ez eban erabiliko berak guk sarri erabilten dogun berba bat, guk konturatu barik, eguneroko gauzetan erabilten dogun itz bat?

Ia egunero entzun al izaten dogu etxean, kalean, nai edonun: Alkondaria jirauletara jantzi dozu. Kaltzerdiak jirauletara darabizuz. Ikusgarri bat edo beste oker ikusten da jirauletara dago-lako...

Orra iraultza. Irauli, buelta emon, guk ondarrutarrok aspirasiño ta guztI esaten dogun berba: jirauleta.

Akulari askoren zeregiña cia zirikatzea, aitzakiak billatzea, nai ta norbera kcrizpean gelditu komeni danean edo bear danean.


Txomin Agirre'k, here zeregiñean, here doaie-tan, iraultza itza erabili bakarrik ez, benetako iraultza be egin eban. Txomin'eri abadetzan edo ta euskeran eskatu ieikioz kontuak. Abadetzako kontuak ez dira gureak. Baiña euskaldun lez, euskera kontuan Agirre'ren iraultzalle ckiña bere edozein lanetan ikusten da. Zer da besterik «Kresala», «Garoa», «Auñemendiko lorea» eta abar idaztea, bere denporetan, erri euskera jator jatorrez, garbi garbi, bizi-bizi, orduan orrela idaztea ia pekatu zan denporan?

Bere kartak irakurtean, ainbat bidar ikusten dogu garbi zaletasuna aldeztuten.

Kontu euki, bera abade zala, eta geroago be, eleizetan dotriña crakurtean, asiera asieratik onela asten giñala: Jaun bat infinitamente poderoso, sabioa, justua, gauza guztien principioa eta fiña.

Eta orrela beste erantzueraz guztietan.

Orrelako giroan Txomin'en euskerak ez etc eban iraultzarik egin euskaldunen artean?



Euskaldun askorentzat iraultzako esan bear, esan nai eta agindua zorrotz eta garbi laga eban berak, bere zeregin eta ardura lez agertuten. ekiana: Eztogu erderazko itzik aotan erabili hear, esan gura doguna euskerazko itzakaz esan daikgunian.

Neugandik asita, ikasbide ori gogoratuko premia ba dogu euskaldunok.

Txomin'ek, ori, esan eta egin eban.

Nire adiskideari gogoratu nai dausat ori eta esan be bai: Ori, len eta gaur, euskaldunontzat eta euskera saillean iraultza ez ba da..., ondarrutarrok esaten dogun lez geu jirauletara bizi gare-lako izango da nunbait.